

...eta

kitto!

912 zkia.
2014-XII-12



Hirukote musikal bikaina zuzenean



EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



+ OSASZUN GODA

Dentistak

arat
Hortz-Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tfn: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental
EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiu, 13 (Orbeako Dorreak)
Tfn.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. esk. 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

ASTEAN ESANAK

"Euskal herrian abestea berezia da niretzat: 'izeba', 'osaba', Apakintza... denak. Euskera entzutea behar dut, bizkortu egiten nau, nire gaztaroa izan zen, barruan daramat. Zure onenean zarenean, beste gauza bat da, baina behin gure adinera helduta izarrak kontatzeari ekiten diozu. Eta neri izar horiek euskeraz egiten didate"

(PACO IBAÑEZ,
ABESLARIA)

"Umeak *desumetu* egiten ditugu, gaztetxo bihurtu, behar baino lasterrago. Nerabezaro amaiezina jasaten dute horrela: txarrena da pubertaroan sartzen direla bertako aldaketa fisiologiko eta mentalik gabe, eta ematen dizkiegun ereduak guztiak sexualizatuta eta genero estereotipoak zeharo markatuta daudela"

(LEIRE NARBAIZA,
IRAKASLEA)

"Atzo arte pentsaezina zen mikrofonodun ezertan hitz egitea tokatzen zitzaion herritarrik xumeenak ere, itxuraz eta behar bezala egiteko, ahaleginik ez egitea. Gaur, ordea, jatoriasunaren, berezko-tasunaren, gaztetasunaren izenean, hedabideetako hitzunik, profesional publikoak barne, denak lotsagabetu dira, eta hainbeste mesede ekarri digun euskara batuaren orde inongo ez diren bertakokeriak botatzen dituzte hizkuntzaren harribitxizko ondareak balira bezala"

(RAMON ETXEZARRETA,
IDAZLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KEDAR.- Keak tximinian lagatzen dabean zikinkeria beltza, gaztelerazko 'hollin'.
KEDARRIA BAIÑO BALTZAGUA.- Oso beltza, konparazio bidez esanda. "Eta danen aurrian urten neban, begi bata kedarrria baiño baltzago ta arpegixan alde batetik besterañoko zanbruz".
KEDARRIK PE EMON EZ.- Oso zuhurra edo zekena denari esaten zaio. Gaztelerazko 'no dar ni la hora, no dar ni los buenos días'. "Kedarrria be ez leuke emongo siku harek, interesik gabe".

eskutitzak

BIZITZAK SEKULAKO OPARIA ESKAINI ZIGUN JULITA EZAGUTZEAN

Zutaz oroitzean, Julita, ez gaitu tristurak harrapatzen; ezinezkoa da zutaz akordatu eta triste jartzea, zurekin batera igaro genituen une guzti haiek goratzean, aurpegian, irribarrea ateratzen zaigulako. Orain eta betiko, elkartzen ginen bakoitzean ematen zenigun indar horrek bultzatzen gaitu aurrera egitera.

Ahaztezina da Eibar Merkataritza Gune Ireki hori jasotzearen zuk egindako ahalegina; zu zeu izan zinen eredu, eta hala erakutsi zenigun: ahaleginaren, maitasunaren eta errespetuaren hizkuntza horiek dira balio duten bakarrak espazioak eraikitze-ko, eta hor, handiak eta txikiak, gremio guztiak, pribatuak eta publikoak,... horiek denak elkartu eta denak irabazten atera.

Apartekoa zinen, paregabekoa. Horrexegatik gidatu zenuen beste hiri askotan imitatu duten

proiektua. Guk Julita izan genuen gure artean. Julita, Eibarkoa, joaten zinen tokira joaten zinela, umiltasunez azaldu eta, ondoren, harrotasun puntu batekin, zera esaten zenuen: *Ezagutzen dituzu Eibarko dendak? Danetik daukagu, eta kalitatia, sekulakoa!*

Eibartar guztientzat Julita zinen, baina zu joaten zinen leku guztietan ere Eibarko izena zeneraman zure deitura edo abizen legez. Benetakoa, jatorra, zuzena eta zintzoa zure buruarekin eta gure hiriarrekin; ameslaria eta detaile txiki guztiak kontuan hartzen zenituen; munduan zehar gertatzen zenari adi, baina begirada gure kaleetan ipinita, eskuzabala, beti lanerako prest, fina eta bihotz onekoa. Bizitzak sekulako oparia eskaini zigun zu ezagutzean!

Ezinezkoa izango da zu ahaztea, Julita.

EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA

SARE: AURKEZPEN HITZALDIXA

Euskal presuen giza eskubidien urraketa eta, batez be, dispersioarekin behingoz amaitzeko asmuarekin, Eibarren be herritarren sare zabala egittera gatoz. Ideologik alde batera laga eta pertsona ezbaridiekin osatu gura dogu Sare eta, hori oso ondo irudikatzen dabilako, Teresa Toda eta Joseba Azkarraga izango ditugu hizlari: bata preso izandako kazetarixa eta kontseillari ohia bestia. Hitzaldixa abenduaren 18an, eguegian, izango da 19.00etan hasitta, Portalean. Giza eskubidiak, da-

nonak, eta zor jakun errespetua danon arduria dala pentsatzen dogulako, behian siñatzen dogunok bertara azaltzeko gonbitia egiten detsuegu.

AITOR ALBERDI, IÑAKI ALBERDI, MAIDER ARANBERRI, OIER ARAOLAZA, MAITE ARROITAJAUREGI, BITTOR ASTIGARRAGA, JOSE LUIS AZPILLAGA, JUANITO BARAHONA, JOSU CRISTOBAL, EDURNE EGURROLA, JON ETXABE, IXIDRO GABIRONDO, MARIASUN GARTZIA, ROBERTO GARTZIA, IÑAKI LASKURAIN, FERMIN LAZKANO, MANIX MANDIOLA, IÑIGO MUÑOZA, IÑAKI OSORO, OIHANE SARASKETA, MARIJOSE SARASUA, ASIER SERRANO, GARAZI BITERI, XABI ZUBIZARRETA.



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi

eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Trio Medianoche

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Jubilauendako billeria astelehenian

Untzagako jubilau etxiak billeria deitu dau astelehenerako (hillaren 15erako). Erabillera anitzeko gelan 19.00etan hasiko dan billeran Eibar nagusixendako herri egokixa dan ala ez aztertuko dabe, Untzagako jubilau etxeako presidentiak gidatuko daberen debatia eginda. Asteleheneko saian aire zabaleko toki-xen eta eraikiñen inguruan jardun-go dabe berbetan, jarraixan zihetzen dittugun puntu nagusixeri ja-

rarrantuta: Zelakua da herrixan bizi-tzia? Zeintzuk dira alde onak? Eta arazuak? Zelako erreztasunak eta trabak topatzen detsazuz herrixari? Billerara doiazanak, bestiak beste, hobetzeko proposamenak egitteko aukeria eukiko dabe eta, horrekin batera eskillara eta espaloien egoeriaz, trafikua, oiñezkuendako pasabidien inguruan eta intereseko beste hainbat konturen gaiñen jarduteko tartia be eukiko dabe.




Asteleheneko billeria Untzagako jubilau etxian egingo da.

Bideo-foruma eta solasaldixa

Datorren asteko eguaztenian, 18.30xetan bideo-foruma egingo dabe Portalean, udaleko inmigraziño alorak Etorkinen Nazioarteko Egunaren harira antolatuta: lehelengo "Balta Txuria, Balta Berdea. El rumor del Urumea" dokumentalaren emanaldixa eskinduko dabe. SOS Arrazakeriak egindako dokumentalak Astigarragan bizitzen geratu ziran Europako ekialdeko motxaillen asentamentuaren esperientzia kontatzen dau. Izan be, Arartekuaren aholkuari kasu eginda, Astigarragako udalak,

Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren lankidetzarekin, 2012xan Errumaniatik etortitako motxaillak aintzakotzat hartu eta herrixan erroldatzen hastia erabagi eban. Erabagi polemikua izanda be, oiñ arteko esperientziarekin pozik dagoz eta 2017ra bittartian garatuko daberen esku-hartze planari esker ordurako kanpamentua desagertzia eta bertan bizi diranak gizarteratzia aurreikusten dabe. Horretarako, Balta Txuriko eta Balta Berdeko biztanliak konpromiso bat siñatu eta hor jasota



daguazeren arauak bete bihar izan dittue.

Dokumentala emon eta jarraixan, solasaldixa egingo dabe Maite Olaziregi (Astigarragako alkateordia), Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria), Alfonso Gurpegi (Eusko Jaur-

lartzako Gizarte Gaien Sailburuordia) eta Sorina Lunca (asentamenduan bizi izandakua) gonbidatuekin, Gorka Errasti inmigraziño teknikuak moderauta. Sarrera libria izango da eta ekitaldixa herritar guztiendako zabalik dago.



Saihesbideko istripuekin arduratuta

Alkatiak kartia idatzi detsa Bide Azpiegitura eta Mugikortasun sailburuari, "bariantian egunetik egunera gero eta istripu gehixago gertatzen dala eta" bere arduraria agertzeko. Aurreko astian isitripu bat baiño gehixago gertatu zan saihesbidian. Horrekin batera Batzar Nagusietan gaixaren inguruan ebaizpenen bat hartzeko proposamena erregistratu dabe, arazuari lehenbailehen heltzeko eskatzen, talde sozialistak istripuak gertatzen diran errepide-zatixa puntu baltza dala pentsatzen dau eta.

Txernobilgo umiendako famelixa billa

Datorren urteko udan haurrak etxian hartu nahi dittuen famelixa billa dabiz Chernobilen Lagunak alkartekuak. Ukrainian, Txernobilgo zentral nuklearrian 1986xan izandako hondamendixak oiñdiok be inguruan bizi diraneri kaltiak eragiten detsaz eta, horregaittik, 1996az geroztik alkatiak Dovi-ria gizarte-etxiarekin alkarlanian dihardu Txernobiletik 50 kilometrorra baiño gitxiagora bizi diran 6-18 urte bittarteko adin txikikue-dako udarako abegi egitaraua antolatzen: "Alkatiak urtero 50 ume ekartzen dittu Gipuzkoara, hamen



pasatzen daberen boladiari esker umien osasunak hobera egitten dau eta". Informaziño gehixago nahi daberenak www.chernobilenlagunak.com helbidian begiratu edo 689 58 62 77 telefono zenbakira deitu leike.

Elikagaixen Bankuari laguntzeko babajana

Zapaturako babajana solidarixua antolatu dabe Eibarko sozialistak, Elikagaixen Bankuarendako dirua batzeko asmuarekin. Goizeko 10.30xetatik aurrera eta 14.00xak arte, Untzagan ipiñiko daben postura juanda nahi dabenak etxera eruateko babak, sakramen-

tu eta guzti ontzi batian erosteko aukeria eukiko dau, bost euro ordainduta. Eibarko Sozialistak ekimen solidarixuarekin "laguntza jasotzeko premiñian daguezenekin dakan konpromisua" berretsi nahi dau. Oin dala urtebete be horrelako babajana antolatu eben

eta orduan batutako dirua Filipinetan tifoia kaltetutakueri laguntzeko erabili eben eta, horrez gain, "Casa del Pueblon" Elikagaixen Bankura eruateko janarixa batzen jarduten dabe urtero.



autuan

PLANO CORTO

Asier Errasti Laburmetrai Jaialdixa antolatzen daben Plano Corto alkartiak, laburmetriak gustoko dakan eta antolamenduan laguntzeko prest dagan jende billa dabil. Interesa eukiz gero deittu 619 44 96 00 telefonora (Amaia).



ORKESTRA-ZUZENDARIA

Jose Miguel Laskurain musikari eibartarrak aste honetan bertan azterketia egin dau, Royal Schools of London dalakuak emoten daben Orkestra-Zuzendari lizentziatu titulua eskuratzeko. Erresuma Batuko musika eskola garrantzitsuenetariko lauk emoten daben tituluak nazioarteko mailan ospe haundixa daka eta, lortzekotan, Laskurainen ikasketak osatzeko balioko dau.

"El Caso Ega Master" Amatiñoren liburua aurkeztu dabe Madrillen

Iaz sasoi honetan Deustuko Unibersidadiak editatuta Luis Aranberri "Amatiño" gure herriko kazetarixak kaleratutako "El caso Ega Master" liburuaren itzulpenak aurkeztu eben atzo Madrillen. Aurretik kalian eguazen euskerazko eta gaztelaniazko ediziñuak oiñ beste hamar hizkuntzatan irakorri egiñ ahal izango dira: ingelesez, frantsesez, italieraz, portugesez, alemanieraz, erusieraz, hebreeraz, arabieraz, txineraz eta japonieraz. Liburuak 120 bihargin dittuan enpresa horretako bide arrakastatsua erakusten dau, Iñaki Garmendia presidentiaren lana nabarmendu eta bezeruarenganako fideltasuna eredua gorai patuz.





Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 ☎ Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- 1) Kardiologia; 2) Zirugia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Anlisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (**BERRIA**)

asteko

24

datua

komunidadek jaso dabe eraikiñak konpontzeko udalak banatutako 90.000 euroko diru-laguntza: 13k igogaillua ipintzeko, 8k fatxadetarako eta 3k gauza bixetarako.


Podemos-Ahal Dugu Eibarko hautagaixak

Podemos-Ahal Dugu Eibarrek herri maillako karguak izendatzeko prozesua zabaldu dau. Asmua taldiaren idazkarixa eta herri-batzordeko sei kidiak aukeratzea da eta horretarako hautagaixak aurreko zapatuan emon zittuen ezagutzera. Bestiak beste Alberto Losada Fernandez, Rafael Gallego de Corpa, Raul Cestafe, Fernando Hinojosa, M^a Felicita Fernandez Collado, Julen Bollain Urbieta, Isabel Fernandez, M^a Eugenia Garcia, Jose Guillermo Manson, M^a Marta Muradas Gonzalez, Felix Lopez Corcuera, Juan Manuel Gomez Vazquez, Aitor San Ildenfonso Artetxe, Monica Merino Sanchez, Iñaki Alfageme, Joseba Ruiz eta Francesc Mata dira aurkeztutako batzuk. Botua emon nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau abenduaren 26tik



Hillaren 26tik 29ra emon ahal izango da botua.

29ra, interneten participa.podemos.info/es helbidian sartuta.



Zamakola lantegi-etxia Jaurlaritzak monumentu deklaratzeko bidian da

Otaola hiribideko 28xan dagan Zamakola lantegi-etxia monumentu deklaratzeko espedientia hasi dau Eusko Jaurlaritzako Kultura Saillak, Ego Ibarra batzordiak aditzera emon dabenez: "Jaurlaritzak ekin detsan bide honekin, Eibarrek izan daben arma-fabrika zahar eta onenarikua betiko gordetzeko aukeria egongo da". Jaurlaritzak jaso dabenari jarraituta, "inguru horretako industrializaziñuan ohikua zan bizilekuaren eta ekoizpenaren arteko konbinaziñuaren erreferentia eta Eibarko sasoi bateko armagintzaren lekuko berezixa da".

45eko Gran Reservakuak euren jaixa ospatu eben

Aurreko eguenian 1945ian jaixotakuak euren egun haundixa ospatu eben eurak jarritako Gran Reserva apelatibuari jarraituta. "Kosetxa edarrekuia zirala" esaten eban pankartia eskuan izan ziran Untzagan eta bazkarixa Arraten egiñ eben. Ez hori bakarrik: jaixaren bueltan bi urtetik behiñ egitten dabena datorren urtian errepikatzea be erabagi eben, "70 urtiak betetzian gure kosetxak merezi daben Errioxako bodegetako kupelak zabaltzeko".

Bestalde, 1948ko kintuak euren bazkarixa abenduaren 20xan egitteko deittu dabe. Interesatuak Juan Mari Lejardi "Pastorri" deitzia dake (659947895), hillaren 15erako -astelehenerako-



...eta kitto!-ren zozketako irabazlia

Sare sozialen bittartez ...eta kitto! Euskara Elkarteak etaratako kamiseta eta sudaderaren erretratua partekatu dabenen artian zozketia egin zan aurreko astian, Euskeriaren Egunian, eta irabazlia Nora Arrillaga eibartarra izan da. Atzo bertan euskera alkartia-

ren bulegora etorri eta sarixa, kamiseta eta sudadera sorta eruan zittuan. Hori bai, juan baiño lehen sudadera jantzitta erretratua etara eban irabazliak. Zozketaren antolatzailliak parte hartu daben guztier eskerrak emon nahi detsez. Zorionak!





Bastida eta Aguilera Legarreko grabazio-estudioan aurkitu genituen diskaren azkeneko detaileak lantzen. Beraiekin Walter Tuzzeo soinu teknikari italiarra zegoen. Sekulako lana egin dute azkeneko egunotan. Diskoa laster kalean izango da. ANA AIZPURUA

Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak Legarren dituen lokaletako grabazio-estudioan harrapatu ditugu diskari azkeneko ikutuak ematen. 20 egun buru-belarri eman dituzte lanean eta oso pozik daude emaitzarekin. Hirukoteak estudio batean egiten duen lehendabiziko diskoari "Viajando con el Trío Medianoche" izena jarri diote. Diska eskuratu nahi duenak aukera paregabea izango du laster; izan ere, salgai jarriko dute Coliseoan, abenduaren 19an emango duten kontzertuan.

TRIO MEDIANOCHÉ "OSO POZIK GAUDE diskoaren grabaketaren emaitzarekin"

- Nolakoa da Legarren grabatu duzun diskoa?

Eibarren aspalditik hain ezaguna eta preziatua den hegoamerikar musika eskaintzen dugu: boleroak, Peruko balsak... Guztira 10 abesti grabatu ditugu Los Panchos, Los Tres Reyes, Luis Alberto de Paraná eta Los Paraguayos-en kanten bertsoekin. Gainera, Joan Manuel Serraten abesti batean oinarritutako bolero bat egin dugu; amaituta daukagu jadanik eta poz handia hartu dugu entzun dugunean, primeran gelditu zaigu. Alor teknikoan, Walter Tuzzeoren laguntza ezinbestekoa izan da. Siziliakoa da Walter eta jadanik gure taldeko partaidea da: aktuazioetan laguntzen digu eta grabazio-lanean sekulako lana egin du.

- Eibartar bi eta bolibiar bat. Zenbat denbora daramazue elkarrekin? Nola ikusten duzue etorkizuna?

(Jesus Bastida): Kasualitatez ezagutu genuen elkar, bakoitza bere aldetik zebilen. Urte eta erdi daramagu elkarrekin lanean. Lehendabiziko pausoak eman genituenean berehala ohartu nintzen musikalki oso gauza onak egiteko gai ginela. Oso lankide onak ditut; nik asko irabazi dut eurekin.



(Bernardo Aguilera): Trio Medianoche Elkarte sortu dugu. Orain izaera juridikoa daukagu eta horri esker ate asko zabaldu zaizkigu. Lehen bakarrik tabernetan abestu ahal genuen, eta orain nahi dugun lekuetan abestu dezakegu: antzerkiak, leku publikoak... Gure arteko harremana oso ona da; horregatik etorkizunean elkarrekin gauza interesgarriak egiten jarraitzea espero dugu.

- Abenduaren 19an kontzertua emango duzue Eibarren...

Abenduaren 13an Santanderren egongo gara eta 20an Iruñako Gayarre Antzokian. 19an, ostirala, Eibarko Coliseoan izango gara. Bertaratzen diren guztiek une atsegina pasatuko dute gurekin; betiko erreperatorioaz gain, 5 abesti berri eskainiko ditugu eta, berrikuntza bezala, Serraten abestiaren bertsoia eskainiko dugu. Cd-a salgai egongo da Coliseoan, 15 euroren truke; eta, agian, abenduaren 24an Cd-a kaleko mahai batean salgai jarriko dugu.



JULITA VALENCIAGA LASUEN

"Adin guztietako, jatorri ezberdinetako, pentsamolde anitzeko eibartarrek adierazi digute zukan maitasuna... ZUK AMESTU IZAN DUZUN EIBARREN ERAKUSGARRI"

ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ DENOI
Zure familiakoak

artian etxiak eta taillarrak alkarrekin nahastuta egotia da aitagarrienetakua. Urtiak juaan urtiak etorri, fabrikaziñuari lotutako eskaeria kanbixatzen juaan zan eta taillar haundixenak auzotik kanpora, beste toki batzuetara eruaten hasi ziran eta 80ko hamarkadako kri-

sixak joera horri aurrera egitzen lagundu baiño ez zetsan egiñ, gero eta edifizio gehixago hutsik geratzen juatia eragin eban eta. Eta 1995ko Plan Nagusixak bertako eraikiñak erausteko asmua jasotziak ez zetsan mesederik egin, kontra-

asteko taillarrak horretarako tartia eskinduko detse parte hartzera animatzen diraneri.

Eta taillarraren ostian hurrengo pausua 2015eko urtarrillian emotia aurreikusten dabe: auzua modu zuzenago eta sakonian ezagutzen juateko, horretarako pentsautako ibilbidiari segitzia proposatzen dabe. Hori urtarrillian bertan egingo diran diagnostiko eta eszenarixoa taillarretan parte hartzeko lagungarria izango dala pentsatzen dabe. Eta behin horrek zihetzuta, otsaillerako herrittarrak hórren gaiñan debatitzera eta euren proposamenak aurkeztera deitzeko asmua dake. Eta otsaillian bertan antolatuko dan ideia-taillarrian akziño konkretu batzuk zihetzuta eta lehentasunari begira ordenatzeko moduan izatia espero dabe, handik hillebetera, RB3-ko lantaldiak, udalak eta herriko eragilliak alkarlanian ondorixoa nagusixenak aztertu eta balo-

garbirik egon ezian, hutsik eguazen eraikiñak ez konpontzia eta, beraz, hondatzen juatia ekarri eban.

2015. urteko martxorako prest

Prozesuan biharrin dagan lantaldiak 2013ko iraillian ekin zetsan auzua ezagutzitari eta, horretarako, bestiak beste, auzuarekin loturia dakan era guztietako dokumentaziñua aztertu dabe eta hainbat lagun alkarriketatu dittue. Eta aurreneko fase horren emaitza dira herrittarren ekarpenekin aberastu nahi dittuen denbora-lerrua eta aurrediagnostikuaren mapia. Hain zuzen be, datorren



Prozesuko arduradunak aste honetan ibilli dira taillarraren gaiñeko informaziñua kalerik kale ezagutzera emoten.

rau ostian, martxuan prozesutik urten daben proposamenak eta bestelakuak herrittar guztieri aurkezteko.

Prozesuaren inguruan interesa dakanak interneten, www.rb3innovacion.com helbidian sartuta eta "proiektuak" atalain Matxarixa aukeratuta informaziño guztia topauko dau eta, bestela, info@rb3innovacion.com helbidera idatzitta edo 943015644 telefonora deittuta proiektuko arduradunekin kontaktuan ipiñi leike.



13.500 TXIKITTO! URTEAN, 860 BAZKIDE

...eta kitto!
ko bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartea. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkarte@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera **5 euro**
- Lanean dihardut **45 euro**
- Langabea, ikaslea, jubilatua, etxeoandrea **15 euro**
- Borondatez, diru gehiago eman nahi dut **euro**

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____ Herria: _____
 Telefonoa: _____ e-maila: _____
 Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
 Kontu zenbakia (20 digito): _____

Sarritan entzuten dugu Euskal Herriko mutilek ez dutela dantzan egien, baina gure herrian kontrakoa erakusten duten adibideak agertzen zaizkigu tarteka. Alex Bergaretxe gaztea adibide horietako bat da, orain dela hiru bat urte beste lagun batzuk nola dantzatzaren zuten ikusita bera ere horretan hastera animatu zen eta. Unibertsitateko ikasketak eta dantzarekiko zaletasuna, biak uztartzen ditu 20 urteko eibartarrak.

- Noiz eta zelan animatu zinen dantzan egitera?

Hamazazpi bat urterekin hasi nintzen. Interneten bideoak ikusten hasi nintzen zaletzen eta gero, nire lagun batzuk kiroldegian dantzan egiteko geratzen zirenez, eurekin batera hasi nintzen eta horretan nabil.

- Break-dance eta horrelako estiloak ez dira oso hedatuta egon inguru honetan, ezta?

Ez, eta gaur egun ere gurean nahiko arraroa da horrelakoe-tan hastea, baina hemendik kanpora, Frantzian, Holandan eta beste herrialde batzuetan ez da horrelakorik gertatzen, estilo horretako dantzak euren egin dituzte eta jarraitzaile asko dauzkate.

- Gehienetan dantza horietaz berba egitean "break-dance" erabiltzen dugu, baina zuek bestela esaten diozue...

Bai, dantza moeta honi buruzko definizioetan gehien erabiltzen den espresioa "break-dance" da, baina hori prentsak ipinitako izen komertziala da, bestela, jatorrizkoa B-boy edo B-boying da. Horrela esaten zaio 1969an

Nueva Yorken, Bronxen sortu zen kaleko kulturari eta "break" dantzaren duenari, berri- z, B-boy deitzen zaio (B-Girl edo Flygirl nesken kasuan). Horrekin batera, nik hip-hop-a ere dantzatzaren dut.

- Zer da dantzatik gehien gustatzen zaizuna? Zerk erakartzen zaitu gehien?

Niretzat dantza hobya, denborapasa da, ikasketek eta bestelakoek tartea ematen ditadenean ondo pasatzeko egiten dut dantzan. Kanean, kiroldegian lagunekin batera, areto batzuetan... horrelako tokietan ibiltzen gara.

- Edozein tabernatan horrela dantzatzaren hasiz gero, jendeak nola begiratzen zaitue?

Denetarik dago, baina gehienetan harrিতa begiratzen geratzen dira. Bestela, toki egonez gero, horrela dantzatzeko arazorik ez dago.

- Edozeinek dantzatu dezake horrelako saltoak eta bueltak egiten?

Bai, gogoia izanez gero eta gustatuta, gogor lan eginda edozeinek lor dezake gure moduan dantzan egitea.



Alex Bergaretxe
(B-BOYING DANTZARIA)

"Edozeinek dantzatu dezake gure moduan"

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

KNX ikastaroa Armeria Eskolan

Armeria Eskolak "KNX aditua" ikastaroa hartuko du datorren astean, eguazten eta eguenean. ERKA telekomunikazio enpresarekin elkarlanean antolatutako ikastaroan batez ere IP komunikazioarekin eta inguru grafikoekin lotutakoak landuko dituzte eta maiatzean egin zen ikastaroa osatzera dator. Horregatik, parte hartu nahi duenak eraikinen automatizazioa, ahal dela KNX inguruetan aurretik ezagutzea eskatzen dute.

KNX eraikinen automatizazioaren merkatuan zabalkunde handia duen estanda-

rra da eta, besteak beste, argiztapen-kontrollean, kalefakzioetan, aire-egokietan, segurtasun kontrollean, audioan eta beste hainbatetan erabiltzen da. Armeria Eskolak Telekomunikazio eta Informatika Sistemen Goi Mailako Graduan eta Instalazio Elektriko eta Automatikoaren Erdi-mailako Graduan irakas-



ten du KNX delakoa eta, horregatik, hainbat irakaslek ikastaroan parte hartuko dute. Informazio gehiagorako www.armeria-eskola.com helbidera jo daiteke.



Urkizun hasi eta Untzagan amaituko da gaurko flashmoba. LEIRE ITURBE

Birakaren flashmoba gaur arratsaldean

Biraka Dantzak gaurko flashmoba antolatu du: 19.00etan Urkizun hasi eta ordubete geroago Untzagan amaitzeko asmoa daukate dantzariak eta, jakina, bidean topatzen duten jende guztia eurekin bat egitera animatu nahi dute. Izan ere, ingeles jatorriko "flashmob" berbak "bapateko jendetza" esan nahi du eta esa-

kerak indar handia hartu du azken aldirian, gaurko deituta dagoen ekimenaren modukoaren eraginez. Eibarren bertan irailaren 20an "Euskaraz bizi nahi dut eguna"-ren harira Untzagan flashmob-a egin zen eta orduan ere Josu Mujika Biraka dantza taldeko arduradunak prestatu zituen dantzarako pausoak.

Gaztetxeak, Olentzerori laguntzen

Gabonak gerturatzeko doazela eta, gaztetxeak jostailu biltzeta antolatu dute: abenduaren 17ra bitartean, nahi duenak etxean erabili barik dauzkan jostailuak hartu eta Iparragirre kalean, Karmengo Amaren eliza parean, gaztetxearen aitean

lagatako zakuan sartu ditzake. Behin jostailu guztiak batuta, gazteek neguko truke-azoka berezia egiteko asmoa dute, horiek doan banatzeko. Azoka abenduaren 20an, 16.00etatik 19.00etara Urkizun, Azpirineko etxearen arkupeetan egingo da.



CARLOS OLAÑETA IZAGIRRE
2014ko abenduaren 4an hil zen, 81 urterekin

"Kostatuko zaigu onartzea ez zaitugula berriro ikusiko, baina bizirik garen artean gure gogoan eta bihotzean jarraituko duzu"

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



EUSKERAZ PRIMERAN kanpaina primeran doa!

Euskeraz Primeran kanpaina tabernetan zabaldu eta gero orain denden txanda heldu da

TABERNARIEN ORDUTEGIAK OSO BERREZIAK DIRA eta zaila egiten zaie tabernetatik kanpo ohiko **Berbetan** mintzapraktika taldeetan parte hartzea. Tabernan bertan egitea ezinbestekoa zen eta zer naturalago tabernari-bezero arteko hartuemana baino?

Lehen berba euskeraz egitea besterik ez du eskatzen **Euskeraz Primeran** kanpainak; agurtzea, zer hartuko duten galdetzea... Lehen berba hori euskeraz eginez gero, berbetia euskeraz jarraitzeko aukerak zabaltzen direlako berehala. 71 taberna daude izena emanda eta balorazioen arabera lehen baino gehiagotan erabiltzen dute euskara ta-

bernan, bai eurak euskeraz agurtzen dituztelako bai bezeroek gehiagotan animatzen direlako euskeraz eskatzen.

Tabernarien artean izandako harrera onak animatuta, eta dendarien kasuan ordutegia ere arazo izaten dela ikusita, **Euskeraz Primeran** kanpaina dendetara zabalduko du ...eta kitto! Euskara Elkartek.

Egunotan dendak bisitatzen ari gara eta dendarien artean ere asko dira kanpainarekin bat egitera animatu direnak. Bezeroek ere badute zer esan eta zer egin, dendetara sartu eta euskeraz hasiz gero, harreman hori euskeraz izateko aukerak ere biderkatu egiten direlako.



DENDARIAK BERBETAN

- | | |
|--------------------------|---------------------------|
| 1. AIXA | 37. IKATZ |
| 2. ALAI ESTETIKA | 38. IRATXE BELARDENDA |
| 3. ALDAZABAL | 39. ITXESI |
| 4. ANA BELEN MENDEZ | 40. IZANE |
| 5. ANA MANDIOLA FARMAZIA | 41. JAUREGUI |
| 6. ANTXON GOZOTEGIA | 42. JERONIMO |
| 7. ARTAMENDI | 43. KETESA |
| 8. ARTILE | 44. KOPINA |
| 9. ASCASIBAR | 45. KRISEILU |
| 10. ASTIGARRAGA | 46. LA GUINDA |
| 11. BAMBI | 47. LEKUNBERRI |
| 12. BENETTON | 48. LIDE GAZTE MODA |
| 13. BURBUJAS Y MAS | 49. LOLA'S |
| 14. CAPI | 50. MEKA-HOTEL |
| 15. CEDRY MODA | 51. MIKEL ELORZA |
| 16. CHARANGA | 52. MUGA |
| 17. CORRAL | 53. MUÑOZ |
| 18. DENETIK | 54. NATURAL BIODENDA |
| 19. DESVAN | 55. NAUTALIA |
| 20. DIRDAI | 56. OBERENA |
| 21. DITARE | 57. PLAZAOLA |
| 22. E & M | 58. QUETZAL |
| 23. EIBAR OUTLET | 59. ROCA |
| 24. ELECTRO AGUIRRE | 60. SABORES |
| 25. ELITE | 61. SALABERRIA BITXITEGIA |
| 26. ERREBAL KIROLAK | 62. SAN ANDRES |
| 27. ETXEDREAMS | 63. SOLERA |
| 28. FARMALUR | 64. TWINS |
| 29. FEDEROPTICOS IGMAR | 65. TXUTXUFLETAS |
| 30. GALARRETA | 66. UMEA |
| 31. GOIEN | 67. UNFEMA |
| 32. GOIKO LUZ | 68. URDANIBIA |
| 33. GOZO GOZO | 69. X EXTREME |
| 34. GOZOKI | 70. YRAOLAGOITIA |
| 35. HOMME | 71. ZABALETA |
| 36. IDOIA BERGARETXE | |

Oraindik dendak bisitatzen ari gara. Interesik baduzu deitu **943 20 09 18** telefonora.

OSTALARIAK BERBETAN

- | | | |
|--------------------|-------------------------|--------------------|
| 1. AGIÑASPI | 25. FOXTER | 49. O'JAYS |
| 2. AKARA | 26. GAU TXORI | 50. OISHI |
| 3. ALBERTO | 27. GURBIL | 51. ONGI-ETORRI |
| 4. ALDATZ | 28. GURIDI | 52. OR-ONDO |
| 5. AMBIGU | 29. HIRUROK | 53. PALOMA |
| 6. AMESTI | 30. IPURUA | 54. PAULANER |
| 7. ANARDI | 31. IRIMO | 55. PORTALEA |
| 8. ARKUPE | 32. ITURRI | 56. SAGARBITZA |
| 9. ARTETXA | 33. KALTON | 57. SLOW |
| 10. ASTELENA | 34. KILI- KILI | 58. SOKOA |
| 11. ATERPE | 35. KITTO | 59. SUBEROA |
| 12. AZKENA | 36. KOSKOR | 60. TAS-TAS |
| 13. BELEKO | 37. KULTU | 61. TRINKETE |
| 14. BIRJIÑAPE | 38. LA TERRAZA DE ROBER | 62. TXIRULA |
| 15. BODEGA VINAGRE | 39. LANUS | 63. TXOKO |
| 16. BOSSA | 40. LAS TORRES | 64. TXURRUT |
| 17. BUENOS AIRES | 41. LAU BIDE | 65. VASCO MANCHEGO |
| 18. CASERIO | 42. LAUREL | 66. XANIA |
| 19. CEPA | 43. LURPE | 67. XOK |
| 20. DEIKA | 44. MAIXA | 68. YORK |
| 21. DEPOR | 45. MANUEL | 69. ZAZPI |
| 22. EGO-GAIN | 46. MOXO | 70. ZELAI- BIDE |
| 23. EGOKI | 47. NUEVO | 71. ZUBI-GAIN |
| 24. EZ- DOK | 48. O'HARA | |

IRENE ELGUREN BILBAO

(2014ko abenduaren 3an hil zen)

**"ISIL-ISILIK IBILI ZARA ZURE BIZITZAN ETA
IBILI BEZAIN ISILIK JOAN ZARA GURE ALDETIK"**

**SENIDEEN IZENEAN, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.**



GABONetarako erosketa GIDA



Bidebarrieta, 16
943 04 39 57

- Perfume ezagunen parekoak, aire-freskagarriak eta mikadoak



TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)



- Erlojuak
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak

Pitxiak

Zuloagatarren, 9
943 20 17 40



Zentro optikoa eta audifonoak



**zorionak
eta urte
berri on!**

- Opariak egiteko aukerarik onena

J. Etxeberria, 13
943 70 02 30



Bidebarrieta, 5
943 20 15 47

- Promozioa:
Gel atzazkalak: 35 €
Betele luzapenak: 35 €

Mahatsondo

Isasi, 19
943 20 09 07

- Ardorik onena konpainia onean edaten dena



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua

FARMALUR *derma*

T. Etxebarria, 18
943 70 29 23



*Ongizatea
oparitu*



zorionak!

GRATZINA



Zuloagatarren, 1
943 82 15 77
Zuloagatarren, 2
943 20 09 91

Jauregui

San Agustin, 4
943 20 16 47

- Menajea
- Beira
- Opariak



- Pantyak
- Galtzerdiak
- Mertzeria



Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

*zorionak eta
urte berri on!*

KINKILTA

Bidebarrieta, 16
943 70 23 29



- Etxeko batoiak
- Ume eta helduentzako pijamak
- Galtzerdiak
- Mukizapiak
- Barruko erroa

Mota guztietako
artileak eta hauek
lantzeko ikastaroak

San Agustin, 2
943 20 40 63



*Etorri
zaitez
ikustera!*

- Mendirako behar duzun guztia

Mara Mara

Arragueta, 10 943 70 20 63

ASTIGARRAGA





Ikusimakusi

J. Etxeberria, 6
943 12 10 07
 ikusimakusi.com

- Ume eta gazte
 moda (0 urtetik
 16ra arte)

zorionak!

*La tienda
 de Pauda*

Zuloagatarren, 7
943 70 15 46



baglietto

Errebal, 21
943 20 19 22

- Opariak
- Etxerako
 osagarriak
- Pinturak



Ditare **Urkizu, 7**
943 12 73 21



*30 urte
 baino
 gehiago*

- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak - Mukizapiak - Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!



Oihal

Ego Gain, 13
943 24 73 44

- Oihalak
- Konfekzioa
- Mertzeria
- Pijamak
- Batak

- Betaurrekoak
 eta opariak
 denondako



Ego-Gain, 2
943 70 14 08



GU BY

J. Etxeberria, 2
943 20 15 51

- Gusto eta adin
 guztietako moda





Gabonetan

oparitu
sudaderak eta
kamisetak



kamisetak

12€

sudaderak

25€

Bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan:
kamiseta 10 € / sudadera 23 €

NEURRI GUZTIETAKO KAMISEKAK ETA SUDADERAK

**Urkizu 11-n gaude.
Zatoz lasai ikustera!!**





Datorren eguenean, hilaren 18an, Joseba Azkarraga eta Teresa Toda Sareko partaideek hitzaldia emango dute Portalean, 19.00etatik aurrera. Biak ere "Euskal Presoen dispertsioaren" inguruan jardungo dute, kaleratu berri duten liburuaren harira. Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarraren buru dira Azkarraga sailburu ohia eta Toda kazetaria; azken hau, gainera, preso ere egondakoa. Euren lanaren ardatz da "ideologia anitzeko lagunen arteko lana baliatuz, inoren aurka jo barik, eskubideen urraketaekin amaitzea".

TERESA TODA, Sare-ko partaidea:

"Dispertsioarekin amaitzeko, bultzada indartsuena Euskal Herrian eman behar dugu"

- Zergatik sortu zenuten Sare herri-plataforma?

Urteetan nabaria izan da, eta da, euskal jendartean badagoela beharra eta borondatea preso-en eta senideen- eskubideen defentsan aritzeko. Urtarrilaren manifestazio erraldoiaren ostean, ibilbide politiko zein pertsonal ezberdinetako lagun batzuk hasi ginen bueltak ematen indar eta behar hauei tresna bat eskaintzeko, non preso zein senideen eskubideen alde lan egiteko prest legokeen edonork bere tokia izango lukeen. Argi geneukan ahalegin horretan ezberdinen artean aritu behar ginela, jendartean hain zabalduta dagoen aldarrikapena indartzeko. San Telmoko adierazpena aurkeztu genuen eta, ondoren, Herritarren Jardunaldia antolatutako guren Eskoriatzan: hor sujerentzi eta proposamen asko jaso genituen. Ekainaren 15ean, San Telmon berriz ere, Sare aurkeztu zen.

- Elkartearen helburuak betetzen doaz? Horren inguruan, zer da baikorrena? Zer ezkorrena?

Geure buruari jarri genizkion helburuak betetzen goaz. Ibilbide labur honetan, zaila da baikorrena zein den zehaztea; Sarearen inguruan biltzen diren lagun berriak eta anitzak, elkartasunaren arloan esperientzia handia duten pertsonak ere atxikitzea... Oso polita eta baikorra iruditzen zait hainbat herritan ideia berriak sortzen direla ikustea, edo sortzaile taldeen bileretan... Gure web-gunea begiratzen duenak, aukera izango du aberastasun horretaz jabetzeko. Ezkorra... Estatuaren jarrerak preso eta senideekiko ezkorra izateko motiboak ematen ditu, baina ezin gara hor geratu, gure indarretan sinetsi behar dugu. Gai gara aurrean dugun hesi erraldoia zultatzeko. Bestalde, nire ustez, gazte gehiago behar ditu Sarek. Lanean, ez bakarrik deitzen diren mobilizazioetan. Eskubideen defentsa denon lana da, belaunaldi artekoa.

- Zelan erantzun du jendeak, orokorrean?

Ondo eta konpromisoarekin. Sarek ez die gauza handirik eskatzen berarengana hurbiltzen diren lagunei. Bakarrik zintzoki azertu dezala zer egiteko edo emateko prest dagoen: uneko laguntza edo eguneroko lanerako konpromisoa. Sarek eskatzen duen bakarra hartutako konpromisoa betetzea da. Herriz herri gbiltza aurkezpenetan eta garrantzitsuak dira ekarpen guztiak, bidean eta bidelagunekin amatzeko.

- Estatuetakoa gobernuen aldetik mugimendurik nabari duzue? Onerako, txarrerako?

Agerian dago azken egunetan zein den Gobernu espainolaren jarrera, eta badakigu Gobernu frantsesak horren segida egiten duela. Txarrerako, dudarik gabe. Urteak daramatzate legedia bihurritzen haien interes politikoetara moldatzeko eta badira urte batzuk Europatik atentzioa deitzen ari dietela. Baina temati jarraitzen du Madrilgo Gobernuak, orain zigorren konputuekin. Zalaparta handia sorrarazten dute legea bete behar dutela esaten zaienean. Eta hori da Europak esaten diena; baita euskal jendarteak eskatzen duena ere.

- Dispertsioaren liburuak kaleratu berri duzue. Zenbat ale, non eskuratuko daiteke?

Gure asmoa da 500.000 ale munduan zehar barreiatzea, Euskal Herriatik hasita: erronka potoloa. Eskuekin heltzeko liburuak zein liburu birtualak, PDFn eta beste formatu elektronikoetan, web-etan ondo bidaiatu dadin. Herrietako Sareen bidez eskuratuko dira.

- "Zuzen Bidean" Eusko Jaurlaritzaren ekimenaren alde egin duzue. Zergatik?

Alde bere zentzu orokorrean; gogoeta gehiago merezi du eta egingo dugu. Sarek bere plan-teamenduan azpimarratzen dituen puntu asko jasota daudelako. Hori da, dispertsioa jasanezina dela, gehitutako zigorra dela preso eta be-

reziki haien senideengan, eta amaitu behar da. Erabaki politiko zehatz baten ondorioa da, mina egiteko, eta erabaki politikoa izango da dispertsioari amaiera jarriko diona. Hemen hasi behar da dispertsioa itoko duen uholdea, hemen hasi eta mundu zabalean indartu.

- Zuk pertsonalki bizi izan duzu espetsialdia. Zein ikasbide atera duzu hortik?

Asko ikasten da espetsialtean, bai. Gauza onak eta txarrak. Onenen artean, kidetasuna eta elkar zaintza. Azterketa pertsonalerako aukera ematen du espetsialteak, eta zintzoki egiten baduzu, zure buruaz asko ikasten duzu. Aldatzen zara, neurri batean edo bestean. Minaren mila aurpegi ezagutzen duzu. Geure kasuan, horretarako espreski sortutako dispertsioak eta bizi baldintza bortitzak; preso politikoetatik haratago, espetsialteak minez beteta daude. Preso sozial askoren egoera larria da, bereziki kanpotarrak direnak.

- Epe laburrera, zeintzuk izango dira eman nahi dituzuen hurrengo pausuak?

Erronka handia daukagu hemendik gutxira: Bilbon urtarilaren 10ean egingo den mobilizazio erraldoia. Euskal Herria NOW -orain, ahora, mantenand...- leloarekin hori irudikatu nahi dugu, Euskal Herriatik mundura zuzentzen gara. Liburuxkak lagunduta, gure aldarrikapenak ahalik eta urrunen iristea nahi dugu, eta iristen diren tokietan -herrikoiak edota instituzionalak- oihartzuna izatea. Informatuta izatearen ondorioz, konpromisoak eta ekimenak bizkortu nahi ditugu, Madrilengan eraginkorrak izango direlakoan. Baina, dispertsioarekin amaitzeko, presoak etxeratzeko bultzada indartsuena Euskal Herrian eman behar dugu. Konponbiderako ezinbesteko mugimendua da eta, konponbidea aurrera joan ahala, presoak kalera atera behar dira, benetako bakea lortu nahi bada.

Foball-zaletuen 12. jardunaldia jokatu da asteburuan

Hamabost eguneko atsedendiaren ondoren, foball-zaletuen liga txapelketaren beste jardunaldi baten aurrean gaude. Hamabigarren honetan domekan jokatu den Sporting Novak-en eta Esmorgaren artekoa izan daiteke interesgarriena, batez ere goiko postuei begira. Talde biek 21 puntu dituzte egun, Azkena Caltonek baino bi gutxiago eta lidergo-

an dauden Durangok eta Koskorrek baino lau gutxiagorekin. Saikapeneko beheko postuei begira, Iruki da azkena (3 punturekin) eta aurretik ditu Caserio Slow Xok (5) eta Oishi Tankemans (6). Bar Txoko da orain arte gol gehien sartu duen taldea, 30ekin, eta aldi berean gutxien jaso dituen (zortzi bakarrik); Bar Aretok zazpi bakarrik lortu di-



tu eta, bestalde, Oishi Tankemans da gehien jaso dituen, 32 golekin. Goleatzaileei erreparatuz, Durangoko Iñakik hartu du aurrea, 9 golekin, eta

gertutik jarraitzen diote Txokoko Condek (8), Txokoko Mikelek eta EzDok Deikako Robertok (7rekin) eta Alkidebako Ronaldok (6).

Somos Eibar eskubaloia, larri izan bazen ere, garaile berriro

Ez da lehen neurketa estu libratzen duela, baina Fernando Fernandez taldeak erakusten dihardu partiduetako azken uneak ondo kudeatzen dakiela. Oraingoan Trapagan irabazi zuen Somos Eibar Eskubaloiak, talde bietako defentsek agindu zuten neurketan (20-21). Partidua amaitzeko 50 segundoren faltan lortutako golari ondo eutsi zioten Somosekoek eta denboraldiko 12. garaipena eskuratu horrela. Hurrengo jardunaldian Santoñara jo beharko dute eibartarrek eta neurketa ez da erraza izango: kantabriarrak, bosgarren badoaz ere, Eibarrek beste gol sartu eta jaso ditu aurrean.



Eibar Eskubaloiko jubenila Espainiako selekzioarekin

Mikel Zabala jubenil mailako Tekniker Eibar Eskubaloiko jokalaria Espainiako selekzioaren deia jaso du, Avilesen jokatu den nazioarteko txapelketan parte hartzeko. Torneoa hilaren 19tik 21era jokatu da, Europako txapelketa prestatzen joateko helburuarekin.



Aitor Hernandez txirrindularia zubian ere garaile

Ziklo-kros denboraldia hasi zuen moduan jarraitzen du egiten Ermuko txirrindulariak eta, azken zubian ere, jokatu hiru probetatik bitan garaile izan genuen eta bestean bigarren amaitu zuen. Zapatuan Asteasun jokatuakoan, Specialized-Ermua taldekoak Ruiz de Larrinagak zail ipini zion lasterketa irabazi zuen azken metroetako esprintean, denboraldiko garaipen estuenean. Domekan, Igorren, inguruko ziklo-krosaren katedralean, hasiera indartsua egin zuen Hernandezek, gero harrapatu egin zuten, baina lau itzuliren faltan berriro aurrera jo zuen eta bigarrenari ia minutua kendu zion. Azkenik, asteleheneko Puente Viesgoko lasterketan, Javier Ruiz de Larrinagak mendekua hartu zuen eta Espainiako Kopako azkenaurreko proba bereganatu zuen. Ordura arte jokatu Espainiako Kopako zortzi probak irabazita zituen ermuarrak eta gauza bera egitera joango da asteburuan Valentzian jokatu den Kopako azken lasterketan. Jakina, Kopari hori matematikoki bereganatu du.

Urko 14 Alkidebak igoera fasea jokatzeko sailkatua

Multzoetako fasea amaitzeko jardunaldi bi falta direnean, gure herrian aurrean sortutako taldea Erregional Preferentera igotzeko hurrengo faserako sailkatu da. Denboraldiko lehenengo jardunaldian Bergaran 4-2 galdu eta gero, ordutik bide ezinhobea egin dute eibartarrek eta 10 jardunaldietan 25 puntu eskuratu dituzte:



bigarrenari, Bergarari, bost puntu kentzen diote, eta Sorluzeri, euren aurka Unben berdintzea lortu duen talde bakarrari, bederatzi. Orain arte 26 gol sartu dituzte eta sei bakarrik jaso. Dena dela, bigarren fasean egin behar dute zirt edo zart mailaz igotzeko asmo horretan.

Bolunburu Memorialak Gipuzkoako txapelketa hartuko du domekan

Bolunbururen oroimenezko krosak 65. edizioa beteko du aurten eta, hori aprobetxatuz, Gipuzkoako kros txapelketa ere jokoan izango da etzi goizean Arraten. Olabe zelaian bederatzi lasterketaz gozatzeko aukera izango da 10.30etatik aurrera. Ordu horretan junior mailako neskek eta kadete eta beterano mailetako gizonak hartuko dute parte 3.800 metroko lasterketan. Jarraian, 10.55etan, neskek izango dira korrika (kadeteak, jubentilak eta beteranoak), 2.800 metroko distantzia betetzen. 11.15etan 5.100 metroko proba



Bederatzi lasterketa jokatu dira domeka goizean Olaben.

jokatuko da, nesken absoluto eta promesa mailakoekin eta mutilen jubentil eta juniorrekin. 11.40etan proba luzeena jokatuko da 8.500 metrotan, tartean absoluto eta promesa mailako gizonetakoekin. Eguerdi ostean infantil mailako neskek (12.20etan, 1.600 metro) eta mutilek (12.35etan, 2.400 metro) jardungo dute eta, jarraian, alebiren ordua izango da: neskek 12.50etan eta mutilek 13.05etan, bi horietan 1.200 metroko probe-

tan. Azkenik, eibartarrak hartuko dituen lasterketa jokatuko da 13.20etan: 2005ean eta 2006an jaiotako benjamin mailakoekin ordua izango da, kilometroa osatzeko Olabe zelaian. Antolatzaileek lau zirkuitu osatu dituzte: mila metrokoa luzeena eta 300ekoa motzena. Klub Deportiboko atletismo batzordekoek parte-hartze bikaina espero dute, "jakinda, gainera, Gipuzkoako kros txapelak izango direla jokoan domekan".

Eibar Foball Taldeak 19 puntu 14 partidutan



1. mailako ligaren herena pasatuta, foballeko gure lehen taldeak ibilbide bikaina egin du orain arte. Gainera, Kontzepzio egunean Ipuruan Almeriari 5-2 irabazita sailkapeneko 9. postuan kokatu da, Athletic-en aurretik, eta Realari sei puntu ateratzen dizkio. Domekan Sevillako Sanchez Pizjuan-en jokatuko du arratsaldeko 17.00etan, partidu zaila benetan. Eta eguaztenean Kopako itzulerako neurketa izango da Ipuruan, Getaferen aurka, 20.00etan: hor bai duela zaila baino zailago aurrera egitea, Madrilen 3-0 galdu baitzuen Gari-

tanoren taldeak. Gabonak aurretik Valentzia hartuko du Eibarrek Ipuruan hurrengo domekan, hilaren 20an, arratsaldeko 20.00etan. Min hartuta dauden Didac Vilá, Berjón, Boateng eta Jaime Jiménez sendatze-bidean daude.

motzean

IGERIKETA

Bihar arratsaldean igeriketako XXVI. Gabon Kopa jokatuko da Ipuruako kiroldegian. Hori dela eta, igerilekua itxita egongo da 16.00etatik 20.00ak arte.

PADELA

Eibarko Kirol Patronatoak kaleratutako oharraren arabera, bihurtik aurrera Unbeko instalazioetako padeleko pistak erabili ahal izango dira.

WATERPOLOA

1.981 zenbakia izan zen saritua Urbat Waterpolokoekin Sananadresetako otarraren zozketan. Zerbaki horren jabeak urbatwp@gmail.com helbidera idatzi dezake. Irabazlerik agertzen ez bada, beste zozketa bat egingo dute abenduaren 30ean, egun horretako ONCEko kupoiarekin batera.

EIBARKO KIROL SARIAK

Gabon Zahar egunean banatzen diren sari horien ekitaldiak 20 urte beteko ditu aurten. Joan den urtera arte Portalean egin bazen ere, iazkoari jarraituz, eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldi hori Coliseoan egingo da aurten ere. Oraingoan ere kirol modalitate bakoitzak bere saritua izango du eta sari berezia ere egongo da.

M^a TERE TELLERIA MAGUREGI

(2014ko abenduaren 3an hil zen, 76 urterekin)

ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

BERE ALABA MARISA ETA KIKO CONTRERAS,
ETA ILOBA GERMAN ETA VIOLETA



Haur parkea, Gabonetarako girotzen joateko

Eguaztenean aurkeztu zuten Esther Kareaga Kultura-Eus-kara zinegotziak eta Asier Lopez de Viñaspre Gazteria sail-eko arduradunak Gabonetarako antolatu dituzten ekitaldiak eta, prentsaurrekoan azaldu zuten, "bihar zabalduko ditu ateak Astelena Haur Parkeak eta, martxoaren 28ra arte asteburuoro, 11.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.30etara zabalduko dute (Aratosteetan itxita egongo da. Urte bi eta 12 bitartekoentzat prestatutako parkerako sarrerak 3 euro balioko du (doan, Eibar Merkataritza Gune Irekiko bonoarekin) eta gehienez 150 lagun sartu daitekeenez, ume bakoitzak gehien jota ordubete eta erdi eman dezake parkean, beste-*ei sartzen lagatzeko*".



Kareaga eta Lopez de Viñaspre aurkezpen ekitaldian. SILBIA

Hala ere, ikasleen oporrak gainean daudenez, abenduaren 26, 27, 29 eta 30ean eta urtarrilaren 2an eta 3an frontoia Gabonetako parke bihurtuko da, 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30etara (abenduaren 28an eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da eta abenduaren 31n, berriz, baka-

rrik goizez 11.00etatik 14.00etara zabalduko dute). Egun horietarako udalak eta EMGIG egitarau berezia prestatu dute, ohiko eskaintzari tailerrak, eskulanak eta bestelako jarduerak gehituta eta, gainera, "umeak ez aspertzeko" puzgariak egunetik egunera aldatzen joango dira.

Olentzero eta erregeak

Olentzerori gutuna idazteko buzoiak Pegoran eta Portalean egongo dira, hilaren 23ra arte. Eta urteroko kalejira, berriz, 24an egingo da, 18.00etatik aurrera. Eta Gabonak agurtu baino lehen, urtarrilaren 5ean Erregeen Kabalgata egingo da (19.00etan Untzagatik abiatuta). Aurretik, 16.30etan Ipurua Dantza Garaikideak, Gimnasia Erritmika Taldeak eta Eibarko Balletak dantza erakustaldia egingo dute Ipurua kiroldegian. Antolatzaileek aste honetako agerraldian aurreratu dutenez, "egitarauko berri-tasun nagusia egun horretan egingo den kalejiran ikusiko da, aurten kale-antzerki ikus-kizuna eskainiko duen *Eventus Culture taldeak parte hartuko du eta*".




Ramonesen berrikusketa akustikoa

Beleko tabernak Iñigo Munduate "Mundu" musikari donostiarren (Barley Juice, Plan B, Mod Time...) kontzertua hartuko du gaur 23.30etatik aurrera: "Mundu Unplugs The Ramones" zuzenekoan, Ramones talde ezagunaren 40. urtemuga ospatzeko taldearen berrikusketa akustikoa proposatzen du, "abestirik ezagunenak alde batera lagata eta kanta melodikoagoi erreparatuz".

Cohenen lan berria

Gaur 23.30etatik aurrera Cohen taldearen kontzertua hartuko du Ez Dok tabernak. Emanaldian "Rooms", zortzi abestik osatzen duten lan berria, taldeak aurtengo apirillean Madrilgo Westline Studios-en grabatutako laugarren diskoa aurkeztuko dute. Lan berria ezagutzera emateko zuzeneko emanaldiekin, ezin-hobeto agurtuko dute urtea gipuzkoarrek, 300 bat kontzertu eman eta gero.



Eibartarrak Gipuzkoako Akordeoi jaialdian

Arrasate akordeoi doinuz bete zen aurreko asteburuan, Hauspoz elkarteak antolatuta hiru egunetan XXII. Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa, Gipuzkoako XXXV. Lehiaketa eta XXVII. Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia hartu zituen eta. Zapatuan egin zen Gipuzkoako Akordeoi Jaialdian Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako 13 ikasle eta Bergarako Musika Eskolako beste lau parte hartzen egon ziren eta, Marisol Arrillaga irakasleak azaldu digunez, "jaialdi horretarako prestaketa luzea, bi hilabetetik gorakoa izan arren,



Eibarko ikasleak pozarren bueltatu ziren han lortutako urte eta zilarrezko dominekin".

Arrasaten parte hartu zuten soinujoelen taldea. FELIX MORQUECHO

Antzerkia barixaku iluntzerako

Gaur 20.30etan Fernando Ferman-Gomezzen "Viaje a ninguna parte" lana taula-ratuko du Sarabela Teatrotik Coliseo antzokian. Angeles Cuñaren zuzendaritzapean Fernando Dacosta, Fina Calleja, Nante Borrajo, Sabela Gago, Elena Seijo, Josito Porto, Celso Parada eta Jorge Casas antzezleek hartuko dute parte. Ordu eta erdiko iraupena duen lan honetan orain dela hamarkada batzuk batetik bestera ibiltzen ziren aktore komiko batzuen gorabeherak, pobrezia nagusi zen sasoiaren barrea eragiteko jarduten zuten aktoreen bizipenak kontatzen dituzte. Sarrerak 12 eurotan egongo dira salgai leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenagotik hasita.



Gitarra eta ahots bikainak zuzenean



Gaur gauean, 23.00etatik aurrera "El Toro y La Niña del Frenesi" zuzenean ikusteko aukera egongo da Laurel & Hardy tabernan. Aitor Aguiriano eta Virginia Fernandez Doctor Deseoren gitarrajolea eta korista dira eta biek elkarrekin "El Toro y La Niña del Frenesi" izeneko proiektua abiarazi dute. Bikotearen errepertorioak hasieran soul kutsu handiagoa zuen arren, denborak aurrera egin ahala rocka gero eta indar handiagoa hartzen joan da. Kalitate handiko gitarrajolea eta ahotsa batuta, emaitzak ona izan behar zuen nahi eta nahi ez.

Aitor Agiriano eta Virginia Fernandez.

Pailazoak bihar eta etzi

Bihar (16.30etan -sarrerak agortuta- eta 19.00etan) eta etzi (16.00etan eta 18.30etan) Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Eibarren izango dira, Hezkuntza Esparruko aretoan, "Txo, mikmak txikia" ikuskizun berria aurkezten. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lau funtzioetatik hirurako sarrera gutxi batzuk geratzen dira lerro hauek idazterakoan eta antolatzaileek argi laga nahi dute inor ezin izango dela sarrera barik ikuskizunera sartu. Sarrerarik geratuz gero, txarteldegia zabalduko da funtzioa hasi aurretik. Horrekin batera, ikuskizunera joateko ahal dela garraio publikoa erabiltzea gomendatzen dute antolatzaileek.



laburrak

GABONETAKO KONTZERTUA

Eguaztenean, 19.00etan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Coliseoan. Sarrerak 3 euro balio du.



ERRUGBIKOEN EGUTEGIA

Eibar Rugby Taldeko 14-16 urtetik beherako gazteak dira datorren astetik aurrera salgai ipiniko duten egutegiko protagonistak. Egutegiak herriko 25 establezimendutan erosteko aukera egongo da, 8 eurotan, eta salmentari esker batzen duten dirua 2015/16 denboraldiko gastuei aurre egiteko erabiliko dute. Bide batez, rugby taldekoek egutegia saltzen laguntzen dutenei eskerrak eman nahi dizkiete.

JULITA VALENCIAGA LASUEN



ZUK LAGA DUZUN LEKUA
INORK EZ DU BETEKO
BETI EGONGO ZARA GUREKIN
Zure kuadrilako lagunak





"Iruñea, izanaren hondamendia" Kultur

Datorren asteko eguaztenez, 19.00etatik aurrera, "Iruñea, izanaren hondamendia", Nabarralderen dokumentalaren proiektioa eta mahaingurua hartuko ditu Arrate Kultur Elkartek, Kulturak berak Einabar elkartearekin batera antolatuta. Angel Rekalderen gidoiari jarraituta Ruben Marcillak zuzendu duen dokumentalak Iruñeak bere ondarearen kontra jasan dituen eraso antizak laburbilduta aurkezten ditu: arkitetnikoak, euskararen aurka, aztarnategi arkeologikoen aurka, Euskal Jai pilotalekua...

Egileek diotenez, "agintariek, euren burua zuritzeko, 'quevien en los vascos' aitzakia darabilte behin eta berriz. Beste batzuek aldiz, euskaldunak hemen gaudela, eta hemengoak garelako argudiatzen dugu. Ahotsak ahots, hiriak bere historia propioa narratzen du aztarna eta toponimoen bidez. Berezko ahotsa dauka. Eta memoria hori da hain zuzen, hiriak ezagutzera ematen duen identitate hori, ezabatu nahi dutena".

Eduardo Lapeyra eibartarraren Exin eta Tente eraikinak Iruñean ikusgai

Egunotan Iruñeako Baluartean "Exin y Tente invaden Pamplona" izenburukoak, gaur egun merkatutik kanpora dauden joko horietako zale-tuek egindako eraikuntza ikusgarrien erakusketa ikus daiteke eta tartean Eduardo Lapeyra eibartarrak egindako hainbat lan daude. Exin eta Tenteko 250.000 pieza erabilita eraikitakoak batzen dituen erakusketa bihar eta etzi 11.00etatik 14.30etara eta 16.30etatik

21.00etara zabalduko dute eta hilaren 20tik aurrera, berriz, egunero egongo da zabalik, urtarrilaren 6ra arte (hilaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1, 5 eta 6an ordutegi berezian zabalduko dute). Sarrerak 3 euro balioko du (doan bost urtetik beherakoentzat).

Erakusketan 16 diorama nagusi daude: Erdi Aroari eskainitakoa, Erromako inpe-



rioari buruzkoa, Egiptoren ingurukoak, espazioaren konkista irudikatzen duena... Eta, horiekin batera, erakusketak Nafarroako hainbat eraikuntza esanguratsuri ere tartea eskaintzen die: Zeligueta eta Olkutzeko dorretxeak, Amaiurgo gaztelua eta Uxueko santutegia ikusgai dauden eraikuntzetako batzuk dira.

Deporrekoen argazki-erakusketa kolektiboa

Gaur inauguratuko dute Portalean Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen erakusketa kolektiboa. Urtarrilaren 4ra arte, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara zabalduko duten erakusketan Pedro Arriola, Jose Luis Irigoien, Jose Vila, Bakarne Elejalde, Enrique Lorenzo, Enrique Albistegi, Rafa Sola, Mikel Urionagueña, J.A. Palacios, J.I. De Castro, J.I. Aizpurua, J.M. Lucena, Fernando Retolaza, Virginia Arakistain, P. Mora, J. Valderrey, Oscar Baglietto, Zigor Astigarraga, Manu Sanchez eta Einer Rodriguez Deporreko argazki taldeko kideen hainbat lan ikusteko aukera izango da. Argazkilaritzarekiko zaletasunak



erakarritara, martitzenero hogei bat lagun batzen dira Deporren eta urtero Gabonak aldera antolatzen duten erakusketari esker, bestela bakarka euren lanak erakutsiko ez luketen hainbaten argazkiak ikusteko tartea izango da.

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

1 €

46''ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen oterra AZKEN EGUNAK!!!

ZOZKETA ABENDUAREN 17AN EGINO DA **SALMENTA LEKUAK:**
Bolintxo OKINDEGIA
...ETA KITTO! (Urkizu, 11)

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, **MARKEL!!**, hillaren 8xan bost urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **OLATZ**, atzo 11 urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, **MIREN**, atzo hiru urte egin zenduan-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **MARTXEL**, bixar zazpi urte beteko dozuzelako. Milla muxu gure foballariari. Aitaxo, amatxo eta Iraiaren partez.




Zorionak, **NORA**, etxeko printzesak bixar bi urte beteko dittu-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **URKO** Ruiz Agirre, domekan bederatzirte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zelako bikote politta osatzen daberen lehengusu nagusixek! Zazpi eta sei urte bete dozuzelako trukian, patxo pillu-pillua famelixa guztiaren partez. Zorionak, **MADDI** eta **PATXI**.



Zorionak, **JULENE** etas **EÑAUT**, 9 eta 7 urte betetziagaitik. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANDRES** eta **AMAIA!** Plazerra izan da zuen urrezko ezteiak ospatzia! Oin moduan maittazten jarraitu eta urte askotarako! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partetik!



Zorionak, **JULEN:** domekan lau urte!!! Patxo haundi bat etxekuen partez.

hildakoak

- Jose Ramon Estandia Setien. 81 urte. 2014-XII-4.
- Carlos Olañeta Izagirre. 81 urte. 2014-XII-4.
- Ricardo Cabello Martinez. 2014-XII-8.

jaiotakoak

- Amets Alonso Honrubia. 2014-XII-3.
- Aitor Puente Larrañaga. 2014-XII-6.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
13an: 16.30, 19.30, 22.30
14an: 17.00, 20.00
15ean: 20.30

"El juez"

Zuzendaria: David Dobkin



(2 ARETOAN)
13an: 16.30, 22.30
14an: 17.00, 20.00
15ean: 20.30

"Perdida"

Zuzendaria: David Fincher



(ANTZOKIAN)
13an: 19.45, 22.30
14an: 20.00
15ean: 20.30

"St. Vincent"


Zuzendaria: Theodore Melli



(ANTZOKIAN)
13an: 17.00
14an: 17.00

"Alexander y el dia terrible"

Zuzendaria: Miguel Arteta



(2 ARETOAN)
13an: 19.30
"Moulin Rouge"
 Canada's Royal Winnipeg Ballet



BARIXAKUA 12

GAZTELEKUA

16.30. Gaztelekua Gabonetarako apaindu. Indianokuan.

FLASHMOB

19.00. Biraka Dantzaren eskutik. Urkizutik Untzagara.

ANTZERKIA

20.30. "Viaje a ninguna parte", Sarabela Teatroyen eskutik (12 €). Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00. El Toro y La Niña del Frenesi (Doctor Deseoren gitarrojolea eta korista). Laurel&Hardy tabernan.

KONTZERTUA

23.30. "Mundu unplugs The Ramones" (taldearen 40. urtemugako berrikuspen akustikoa). Beleko tabernan.

KONTZERTUA

23.30. Cohen taldea, "Rooms" lan berria aurkezten. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 13

BABAJANA SOLIDARIOA

10.30/14.00. Razioa 5 €. Elikagaien Bankuarendako Eibarko Sozialistek antolatuta. Untzagan.

IGERIKETA

16.00. Eibarko XXVI. Igeriketa Gabon Kopa. Ipurua kiroldegian.

PAILAZOAK

16.30 eta 19.00. "Txo, Mikmak txikia", Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria. Hezkuntza Esparruan.

GAZTELEKUA

17.00. Gaztelekua Gabonetarako apaindu. Indianokuan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. "Gabonetako arbola", 3-12 urte bitarteko umeendako. El Corte Inglesean (aretoan).

KALEETAN KANTUZ

19.45. Abesbatzaren kalejira. Urkizutik abiatuta.

DOMEKA 14

PAILAZOAK

16.00 eta 18.30. "Txo, Mikmak txikia", Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria. Hezkuntza Esparruan.

GAZTELEKUA

17.00. Play / Wii. Indianokuan.

ASTELEHENA 15

IKASTEN

10.00. Luzapenak. Portalean.

ANTZERKIA

18.00. "Gaixo tranpantiak", "Liburu magikoa", "Irakasle gaiztoak" eta "Iruzurgileak", San Andres ikastetxeko 5. eta 6. mailakoan antzezlanak, eskolaren 50. urteurrenaren harira. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

19.00. "Suelo pélvico e hipopresivos". Hizlariak: Ruben Gonzalez (sabel-gimnasia irakaslea) eta Estefania Abanto (ginekologoa). Portalean.

MARTITZENA 16

IKASTEN

10.00. "La guerra de sucesión española", Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

JAIALDIA

18.00. San Andres eskolako jaialdia, 50. urteurrenaren harira. Eskolako gimnasioan.

LOMCE-RI EZ

18.30. Eibarko LOMCEri Ez taldearen bilera irekia. Depor tabernan.

EGUAZTENA 17

IKASTEN

10.00. Luzapenak. Portalean.

10.30. Antzerki taldearen entsegua. Erdibana elkarte gastronomikoan (Urkizun).

11.00. Kafe-tertulia: "Jueces e injusticia. ¿Hay voluntad de justicia o privilegios para los poderosos?". Untzaga jubilatuen etxean.

JAIALDIA

18.00. San Andres eskolako jaialdia, 50. urteurrenaren harira. Eskolako gimnasioan.

BIDEO-FORUMA

18.30. "Balta Txuria, Balta Berdea. El rumor del Urumea" dokumentalaren emanaldia eta solasaldia, Etorchinen Nazioarteko Egunaren harira. Portalean

KONTZERTUA

19.00. J.B. Gisasola Musika Eskolako Gabonetako kontzertua (3 €). Coliseoan.

MATXARIATUZ

19.00. Matxariaren etorkizunari buruzko parte-hartze prozesuari buruzko informazio tailerra. Portalean (Armagintzaren Museoa).

PROIEKZIOA

19.00. "Iruñea, izanaren hondamendia" Nabarralderen DVDA eta mahaingurua. Arrate Kultur Elkarte.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 18

IKASTEN

10.00. "Lecciones de vida", Adinduren eskutik. Armeria Eskolan.

AURKEZPENA

19.00. "Euskal presoan dispersioa". Hizlariak: Teresa Toda eta Joseba Azkarraga (Sare). Portalean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenean batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Lagunek espero ez duzun zerbait dute zuretzat gordeta. Sorpresa polita izango da: ez zaitetz ibili zer den asmatu nahian.

TAURUS

Asteburuetan larregi desfasatzen zara eta aste erdia behar izaten duzu zure onera bueltatzeko. Kontrolatu apur bat.

GEMINI

Azken asteotan gauzak ez zaizkizu irten espero moduan. Bolada hori atzean laga eta dena bere onera bueltatuko da: lasai.

CANCER

Negua bada ere, ez duzu zertan momia baten moduan jantzita joan beharrik. Ligatzea nahi baduzu, janzkera aldatu.

LEO

Serioa ematen duzu, baina ezagutzen zaituenak badaki nolakoa zaren. Egizu irribarre: doan da. Gainera, merezi du!

VIRGO

Larregi kostatzen zaizu erabakiak hartzea eta aukera asko galtzen dituzu. Izan ausartagoa, ez zara-eta damutuko.

LIBRA

Zergatik ez diozu berba garbi egiten? Gustatzen ez bazaizu, onena hasieratik esatea da: gero min gehiago hartuko du.

SCORPIUS

Urduri zabilta eta horrek ez zaitu inora eramango. Lasaitasun apur batek ez dizu kalterik egingo. Hartu erabakia!

SAGITTARIUS

Kirola egitea ondo dago: denontzat da komenigarria, baina neurri batean! Ez zaitetz pasatu: astean birritan nahikoa!

CAPRICORNIUS


Zure txanda iritsi da! Ligatzeko sasoia heldu zaizu: sex-appeala toperaino izango duzu egunotan. Aprobetxatu!

AQUARIUS

Zure unerik onenean zaude eta horrela jarraituko duzu. Ia-ia nahi duzun guztia lortuko duzu hurrengo egunotan.

PISCIS

Besteen aholkuak entzutea ondo dago, baina ez zaitetz tontolapikoa izan. Ez al duzu ikusten engainatu nahi zaituztela?



erakusketak

- ✓ **Abenduaren 27ra arte**
ROBERTO ZAMANILLO ARNAIZ-EN mikologia argazkien erakusketa. *El Corte Inglesean.*
- ✓ **Abenduaren 28ra arte**
ESPERANZA ZABALAREN margo erakusketa. *Topalekuan.*
BEGOÑA RIVAS-EN "Marea baja" argazki erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Abenduaren 31ra arte**
JUAN ANTONIO PALACIOSEN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*
IÑAKI REBOLLEDO ETA PILI PALACINEN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
ARGAZKILARITZA IKASTAROKO IKASLEEN argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- ✓ **Urtarrilaren 4ra arte**
EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEKOEN erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**
"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa. *Armaztearen Museoa (Portalean).*

farmaziak

- ✓ **barixakua 12**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **zapatua 13**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 14**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 15**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 16**
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguztana 17**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 18**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 19**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekuua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

lehiaketak

- ✓ **Arrate Kultur Elkarterako logotipoa**
 Zer: Logotipoan "Arrate Kultur Elkarte" edo AKE akronimoa agertu beharko dira. Lanak aurkeztea: **Urtarrilaren 22ra arte**, Informazioa: 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean
- ✓ **Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa**
 Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urtarrilaren 21era arte**, Pegoran.

5			9	4	1			
	2					4		
		1	8					
		8	5				2	1
3				7				8
7	6				4	5		
					6	3		
		3					6	
			3	9	2			5

SUDOKUA

4	1	2	7	8	9	5	3	6
3	9	8	5	6	1	2	4	7
5	6	7	3	2	4	8	9	1
7	8	6	1	4	3	9	2	5
1	5	4	9	7	2	3	6	8
2	3	9	8	5	6	1	7	4
8	2	1	4	9	7	6	5	3
9	4	5	6	3	8	7	1	2
6	7	3	2	1	5	4	8	9

AURREKOEN EMAITZA

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.
- Sorailuzen Babes Ofizialeko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzitza eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.
- 3 logelako pisua salgai Aldatzen. Lehenengo solairua, berriztuta eta eguzkitsua. Kanpoko igogailua. Tel. 660-683280.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro. Tel. 632-569245.
- Pisu ia berria alokagai Elgetan. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean eta sartzeko moduan. Tel. 606-083992.
- Eibarren pisua konpartituko lagun baten bila nabil. Tel. 660-833346.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Taxi lizentzia salgai Eibarren jubilazioarengatik. Tel. 696-966865.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.
- Taberna traspasatzen da Eibarko erdialdean. Tel. 659-377095.
- Garaje itxia alokagai Ardantzako geltokian. Haundia. 100 euro. Tel. 647-952677.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-874731.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 658-755640.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernak edo pegorak garbitzeko. Tel. 631-282203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-004773.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-059689.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-754174.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-176974.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Gida baimenarekin. Tel. 631-315363.
- Neska gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-980628.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala, asteburuetan barne. Tel. 631-467031.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-230789.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 636-841158.
- Txoferra eskaintzen da, karnet guztiarekin eta garraiolari (trailer) tituluarekin. Esperientzia. Tel. 633-181350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-587259 eta 632-966192.
- Neska eskaintzen da lan egiteko eta umeak zaintzeko. Interna. Tel. 633-808931.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzan diplomatuak klase partikularak ematen ditu Amañako zonan. LH eta DBH 1 eta 2. Edozein irakasgai. Esperientzia. Tel. 617-184931. Maite.
- Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, Batxilergoa. Edozein irakasgai. Taldean edo bakarka. Tel. 610-980628.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Azterketa ofizialerako prestaketa. Irakaslego natiboa. Tel. 652-763264.
- DBH eta Batxilergoko Matematika etabarreko klaseak ematen dira. 1 edo 3 ikasleren taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako prestakuntza. Matematikak, Ekonomia, Fisika, Kimika, Euskera, Ingelesa, Gaztelania eta Estatistika. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Gurpil-aulkia salgai. Egoera onean. Silikonazko bizkarraidea eta babesteko manta opari. 150 euro. Tel. 943-202042 eta 626-349842.
- Ordenagailua salgai. Inpresorarekin. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
- 0'90eko sukaldea salgai, bonbonak eramatekoa eta labearekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua. Berriak. Tel. 617-688311.
- Mahai-tresneri berria salgai. 75 pieza. 180 euro negoziagarriak. Tel. 616-533796 eta 943-752480.
- Antzinako Elme heladora salgai. 2 litroko kapazitatea. 200 euro. Tel. 628-714824.
- BH markako eliptikoa salgai. 2015eko abendura arteko garantiarekin. Tel. 645-007388. Asun.
- Umearen silla salgai, Bugaboo Be markakoa, gehi patineta. 2011koa. Bi urtean erabiltza. Egoera onean. 360 euro. Tel. 646-274760.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Telefono mugikorra aurkitu nuen domeka goizean Ardaniza inguruan. Tel. 943-203205.
- Tom-Tom markako GPS-a, funda zurian sartuta, galdu nuen Eibarren aurreko astean. Tel. 615-797641.

6.4. Bestelakoak

- Plano Corto elkarteak kolaboratzaileak behar ditu musutruk lan egiteko: web orrialdea eraman, epaimahaikide izan... Tel. 619-449600.

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58



CENTRO OM ZENTROA
Zezenbide, 1 - beheak esk.
627 916 746 - 943 20 83 24 **Felipe Arnoz**

Fisioterapia laguntzailea eta Naturopatia teknikaria (5.644 kol.)

- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Reiki Maisua eta Terapeuta: 2.967 Kolegiatua
- Reflexologia
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)

Okulistak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

R.P.S. 234/13
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Klinikka

• Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria 2.º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48 EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54 ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Umeak, Nerabeurrekoak, Nerabeak
- Hiperaktibitatea, Autoestimua, Motibazioa, etb.

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - beheak
Tel. 943206823 eta 686859023

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**